

GAITASUN-PROFILA

GAITASUN OROKORRAK

- Negozio- eta teknologia-arloetako helburuak bete daitezen erraztea, manufaktura-industriarako datu-analitikako proiektuetan.
- Industria-negozioaren eta datu-analitikako soluzio teknologikoen negozioaren eskakizunak ulertzea.

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- Datu-analitikako proiektu batean parte hartzen duten zeregin nagusien (proiektuko zuzendaria, datu-ingeniaria, datu-zientzialaria) ikuspegia bereganatzea, tituluarekin lotutako testuinguruetan. Zeregin horien gaitasunekin lotutako gako nagusiak ezagutzea.
- *Proiektuen zuzendaritzari eta kudeaketari* buruzko ezagutza metodologiko eta teknikoak eskuratzea, ingeniaritza-proiektuetarako metodologia-maila orokor batetik datuen analitikako proiektuen eta fabrikazio aurreratuko/adimenduneko inguruneetan garatutako proiektuen maila espezializatuago batera.
- *Datu-ingeniartzako* geruza teknologikoei –analitikaren xede izango diren datuak lortzea, biltegiatzea eta prestatzea bermatzen dutenei (industria-instrumentazioa, datuen transmisioa eta biltegiatzea, Big Data plataformak)– buruzko ezagutza tekniko espezializatuak lortzea.
- *Datu-zientziari* eta datu-analitika prediktiboko ereduen sorrerari buruzko ezagutza tekniko espezializatuak lortzea: inferentzia estatistikoaren kontzeptuak; eredu prediktiboak sortzeko alderdi orokorrak; zenbait algoritmo eta eredu nagusiren ikuspegi zehatza, eta algoritmo horien inplementazioak, plataformak eta lan-inguruneak; kasuak eta erabilera-testuinguruak.